

BIZITEGITARAKO ERAIKINAK ERAIKITZEKO ETA ZAHARBERRITU EDO ERABERRITZEKO LAGUNTZEN UDAL ORDENANTZA

1. artikulua. Helburua eta aplikazio eremua.

Ordenantza honen xedea da Basaburuko Udalak honako hauei laguntza emateko ezarritako diru-laguntzak arautzea:

- 1) Zaharberritze edo eraberritze obrei, udal mugapearen barnean dauden eraikinetan.
- 2) Bizitegitarako eraikin eta etxebizitzak berritik eraikitzeari.
- 3) Lehen sektorerako eraikina eraberritu, handitu edo berritik eraikitzeari, haren familia unitatearen ogibide nagusia abeltzaintza denean.

2. artikulua. Jarduketa babesgarriak.

Udalaren babes obrak hauengatik jaso daiteke:

2.1.-Eraikinaren egitura egokitzeagatik; hemen sartzen dira eraikinari eraikuntza aldetik behar diren segurtasun baldintzak emanen dizkieten obrak, egonkortasuna eta sendotasuna bermatuko dituztenak.

2.2.-Eraikina eginkizunaren aldetik egokitzeagatik; hemen sartzen dira honako hauei dagokienez behar bezalako baldintzak emanen dizkieten obrak: estalkia, fatxadak, sarbideak, patioak, instalazioak eta segurtasun neurriak.

2.3.-Eraikina bizigarritasunaren aldetik egokitzeagatik; hemen sartzen dira honako hauei dagokienez behar bezalako baldintzak emanen dizkieten obrak: banaketa, estaldurak, isolamenduak, zurgin-lanak, instalazio eta akaberak, sukalde eta bainugelak eta Eraikuntzaren Kode Teknikoaren babespeko jarduketak, aurrezpen energetikoari lotuak.

2.4.-Eraikina zer lurzatitan dagoen, hantzeko espazio libreak eta itxiturak egokitzeagatik.

2.5.-Eraikinak eraisteagatik, indarrean dagoen hirigintza planeamenduan aurreikusita dagoenean.

2.6.-Oztopo arkitektonikoak kentzeagatik.

2.7.-Etxebizitza berriak eraikitzeagatik, titularren ohiko bizileku iraunkorra izateko direnean. Horretarako, titullarrak etxebizitza hori ohiko bizileku iraunkorra izanen duela adierazi beharko du eskabidearekin batera. Bankuko abala aurkeztuko du, hartuko duen diru-laguntzaren zenbateko berekoa, legezko betebeharrak hori hurrengo sei urteetan beteko duela bermatzeko.

2.8.-Abeltzaintzako nabe berriak eraikitzeagatik edo egungoak eraberritu edo handitzeagatik, betiere titularra udalerrian bizi bada eta bertan erroldaturik badago.

3. artikulua. Baldintzak.

3.1.-Jarduketa babesgarritzat hartua izateko, eraikinak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Egungo eraikinetan, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna izatea, eta 5 urte, abeltzaintzako nabeetan.

b) Hirigintzan indarra duten araudiak eta planeamenduak ezarritakora egokitzea.

3.2.-Udalaren babesetik kanpora dago:

-Behar den udal txostenean beharrezkotzat jotako obrak egiten ez dituen jarduketa.

-Eskatzailearen ohiko etxebizitza iraunkorrek zuzenean ikusteko ez duena.

-Indarra duen prozeduraren arabera tramitatzen ez dena.

-Ogibide nagusia abeltzaintza dutenen ustiategi batekin ikustekorik ez duena.

4. artikulua. Laguntzak.

Adierazitako baldintzak betetzen dituzten jarduketa babesgarritzat izanen dira Udal honek ezarritako laguntzak. Obra gauzatzeko aurrekontuaren %2 egingen dute diru-laguntza horiek.

5. artikulua. Onuradunak eta laguntzen harrera.

5.1.-Jarduketa babesgarrien sustatzaileak laguntzen onuradun gertatu ahal izateko, aipatu baldintzak bete beharko dituzte jarduketek eta, gainera, obrak hasi baino lehen egin beharko da eskaera. Eskabidearekin bat ziurtagiriak aurkeztuko dira, eta ezinbestekoa da Udalaren adostasun txostena egotea espedientean.

5.2.-Laguntzak behin betiko bihurtuko dira obrak burutu ondoren eta, horrenbestez, zerbait bete gabe utzi dela ikusiz gero, horietarako eskubidea galduko da; gainera, horrek ez du eragotziko bestelako egintza batzuei ekitea. Onuradunek diru-laguntza lehenago jasotzea lortzen ahalko dute, baldin eta laguntzaren zenbateko bera duen banku abal baten bidez bermatzen badute ordenantzetako baldintzak betetzen direla.